

EUDELeK Tokiko Gobernuetako Gardentasunari buruzko jardunaldia antolatu du

- **Jardunaldia ekainaren 19an izango da, EUDELen egoitzan; besteak beste, *Transparencia Internacional* erakundearen eta Bilboko Udalaren txostenak irakurriko dira.**
- **Saio ezberdinetan, hainbat gai jorratuko dira: gardentasunaren balioa ondo gobernatzeko, udaletako gardentasun-adierazleak, Bilboko Udalearen eredu estrategikoa edota Gardentasunaren Legea indarrean sartzeak dituen ondorioak.**

Bilbon, 2012ko ekainaren 18an. EUDELeK, datorren ekainaren 19an, tokiko gobernuetako gardentasunari buruzko jardunaldia antolatuko du; jardunaldia Euskadiko udaletako arduradun politiko eta langile teknikoei dago zuzendurik. Jardunaldia EUDELeK Ercilla kaleko 13. zenbakian duen areto nagusian egingo da, goizeko 9:00etatik 14:00etara.

Jardunaldiaren xede nagusia da udal esparruan gardentasunaren kudeaketari buruzko jardunbide onak eta arrakastatsuak trukatzeari, Bilboko Udalaren esperientzia kasu. Saio ezberdinetan, hainbat gai jorratuko dira: “ondo gobernatzeko” gardentasunak duen balioa, edota udaletako gardentasun-adierazleak gauzatzeko metodologia, *Transparencia Internacional* erakundearen eskutik. Egitarauak, halaber, Estatuko Gardentasunaren Legearen aurreproiektuari eta legea indarrean sartzeak tokiko gobernuak ekarriko dizkien ondorioei eskainitako saio bat ere izango du.

Azkenik, jardunaldiari amaiera emateko, bertaratzen diren udalen artean lan-tailer bat egingo da, erronkak nahiz beharrak antzemateko, udaletan gardentasuna bultzatzeko orduan.

Gardentasunaren diagnostikoa, Euskadiko udalerrietan

EUDELeK datozen lau urteetarako duen plan estrategikoa udal kudeaketaren gardentasuna hartzen du bere ardatz eragileetako bat bezala, berrikuntzarekin eta prestakuntzarekin batera, betiere, eraginkortasuna eta efikazia sustatzeko Euskadiko udaletan.

Euskadi oso mota ezberdinetako udalerriek osatzen dute, tamaina, antolaketa eta baliabide ezberdinetakoek, eta zerbitzuak jasotzen dituzten herritarrak ere askotarikoak dira. Euskadiko udalerrien %80k 2.000 biztanle baino gutxiago ditu, eta %25ek 5.000 biztanle baino gutxiago.

Horregatik, maiatzean abiarazi zen lehenengo ekintzetako bat udalerri bakoitzaren gaineko banakako diagnostikoa egitea izan zen, antolaketa eta barne kudeaketa prozesuak antzemateko, betiere, gardentasunaren eta berrikuntzaren esparruan aurrera egiteko hobetzen laguntzeko eta kokatzeko asmoz.

Erabiltzen ari diren neurtzeko adierazleetako batzuen adibideak hurrengoak dira:

- **Informazioa eskuragarri egotea udalaren web orrialdean:** zein aldizkakotasunarekin eguneratzen den, erabilerraztasuna, bisitak...
- **Kudeaketa-adierazleen** erabilpen neurria.
- Kudeaketaren **kontuak ematea:** erabilitako bideak (prentsurrekoak, webgunea, osoko bilkurak...), ezarritako helburuak...
- **Herritarren partaidetzarako tresna** erabilgarriak: jendaurrean jartzea, osoko bilkura irekiak, herritarren aholkuak, kexa eta iradokizunen postontziak...
- Feed-back delakorako **bideak** udal zerbitzuak erabiltzen dituzten **erabiltzaileentzat**.
- **Herritarren ohar, iradokizun, kexa eta erreklamazioen kudeaketa.**